


Kablerik gabeko interferentziarik sortzen ez duen datuen bidalketa sistema EEUUtik saria eskuratu du

2013/02/25

Artikulu irabazlean, kable bidezko komunikazio sistemak haririk gabeko beste sistema batekin ordezkatzeko gaitasuna ematen duen aplikazioa deskribatzen da. Eta hori automatikoki interferentziak saihesten direla ziurtatuz. Ikerlan-IK4 eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikertzaileek garatutako aplikazioak, bi gailuen arteko kable bidezko bideo transmisioa haririk gabeko sistema batekin ordezkatzeko du 'Irrati Kognitiboen' teknologia erabiliz. Teknologia honen bitartez, orain arte haririk gabeko sistementzat eskuragarri ez zeuden fidagarritasunak lortzen dira. Besteak beste, aplikazio hau bidaiari baten haririk gabeko estaldura hedatzeko erabili liteke, automatikoki komunikazio operadoreen sare eta WiFi konexio puntuen artean aldatuz.

Beste aplikazio adibide bat hari bidezko zirkuitu itxiko telebista sistemak dira. Industria-enpresetako langileek gaur egun haririk gabeko sistementzat gaindiezinak diren erronkei aurre egin behar diete, hau da, aurkako ingurune batean haririk gabeko sistema batek irudiak galtzen ez dituela ziurtatzea. Honelako inguruneetan, metalezko hainbat elementuren presentzia eta berezko interferentzia elektromagnetikoak izaten dira eta.

Ikerlan-IK4 eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikertzaileek garatutako sistema gai da erronka horri erantzuteko, igorlea bidalketa egiteko erabili nahi den maiztasun banda libre dagoen automatikoki egiaztatzeko programatuta dagoelako. Libre bada, seinale bidaltze da, eta bestela libre dagoen beste maiztasun banda bat bilatzen du.



Ikertzaile taldea